

I. ZIENTZIA-, TEKNOLOGIA- ETA OSASUN- KULTURA KONPETENTZIAREN ITEM ADIBIDEAK

I.1. OSASUNTSU JATEN

Irakurri arretaz ikastetxeetako jantokiei buruzko hurrengo berri hau.

Barazki, lekale eta arrain gutxi ikastetxeetako menuetan

Pediatría Elkartearen ikerketa batek dieta desorekatuak antzeman ditu jantokietan

Ikastetxeetako jantokiek eskaintzen dituzten menuek haragi gehiegi dute eta fruta, barazki, lekale eta arrain gutxi. Dieta honek obesitatea eragiten du, ez da orekatua eta ez die haurrei laguntzen egoki jaten ikas dezaten. Hau da adituek atera duten ondorioz garrantzitsua.


01 Aurreko berrian ikastetxeetako jantokietan fruta astean hiru aldiz jaten dela esaten da eta barazkiak, bi aldiz.

Hala eta guztiz ere, zergatik esaten da, jaki hauei buruz, dieta desorekatua dela?

- A. Ez direlako arrainarekin batera eskaintzen.
- B. Jaki hauek obesitatea eragiten dutelako.
- C. Fruta eta barazkiekin proteina gehiegi jaten delako.
- D. Fruta eta barazkiak egunero jan behar direlako.

02

Arretaz aztertu beheko irudia. Bertan ageri da giza gorputzean jakiak digeritzen arduratzan den aparatua. Nola deitzen da aparatu hau?



- A. Irantz-aparatua.
- B. Digestio-aparatua.
- C. Lokomozio-aparatua.
- D. Zirkulazio-aparatua.

03 Atzo Mainerrek jan zuena:

Gosarian	Ezer ere ez.
Atsedendian	Txokolatezko edari bat.
Bazkarian	Xerra arrautza frijitu batekin. Arrain frijitua. Jogurta.
Askarian	Patata frijitu pakete bat.
Afarian	Arrautzak urdaiazpikoarekin. Jogurta.

Adierazi hurrengo kasu bakoitzean elikadura EGOKIA den ala elikadura DESEGOKIA den. Idatzi **(X)** bat behar den zutabean:

	Elikadura egokia	Elikadura desegokia
Gosarian ezer ez jateak ez du axolarik, egunean zehar asko jan duelako.		X
1. Mainerren dietak proteina gehiegi ditu.		
2. Frutak eta barazkiak egunero jan behar dira.		
3. Esneak hezurak sendotzen ditu eta hazkuntzarako lagungarria da.		
4. Patata frijituek beharrezkoak diren bitamina eta mineral guztiak dituzte.		